

UNA VIDA NO TAN SIMPLE

IRENE ELORTZA GERENO

Seme-alaben hazkuntza nekagarria eta beherakada profesional batean murgilduta bizi den 40 urteko Isaias (Miki Esparbé) arkitektoaren bizipe-nak ageri dira Félix Viscarret zuzen-dari nafarraren *Una vida no tan simple* filmean.

Malagako zinema jaialdian es-treinatu zen filma eta maiatzetik ikusgai egon da zinema-aretoetan. Pozik al zaude ordutik egin duen ibilbidearekin?

Oso gauza polita gertatu da, he-dabideetan "kritikaren eta publi-koaren adostasuna" esaten diote-na. Hori oso dibertigarria da, batez ere arrakasta, porrota, garaipena eta abarrei buruz barre egiten duen peli-kula batean eman delako. Oso poli-ta izan da kritikak eta publikoak hain modu sutsuan babestu izana.

Bizitzako une oso berezi baten erretratua izateaz gain (aitata-suna, 40 urteko krisia, gaztaroa atzean uztea), filmak gaurkotasun handia du. Nolako izan da be-launaldi baten dilemak islatzea?

Publikodun emanaldietan ikusi dugu belaunaldi desberdinekin konekta-tzen duela. Oso polita da ikustea nola konektatzen duen emakumeekin, eta nola batzuetan gizonezko gehiago kostatzen zaien adin ertaineko krisia-

Viscarret: "Pertsonaiak gugandik hurbil sentitzea zen inportanteena"



MIKEL LARREA

ren patetismoaz barre egitea. Oso ondo funtzionatzen du zeren denok egon gara krisi-une horretan, bide-gurutze horretan.

Tarteka komedia erromantikoa, tarteka drama... Oso oreka deli-katua dago filmaren tonuan. Zein izan da hori lortzeko gakoa?

Horixe zen filmaren apustua, nahiz eta proiektuaren hastapenean denek

ez zuten argi ikusten. Fedea izatea ez zen erraza baina niretzako oreka delikatu hori erabakigarria zen filmerako. Pertsonaiak dibertigarriak eta patetikoak dira, baina garrantzitsuen pertsonaia horiek gu guztiongandik hurbil sentitzea zen. Denok senti dezakegu gure bizitza ere horrelakoa dela, hor egon gara. Komediaren eta malenkoniaren arteko lerro fin horretan mugitzen den ko-

media, nerabezarotik erakarri naue-na, zinemaren arakatzeko modu oso polita da, bizitzatik zerbait duelako. Umore horrek hankasartzeak eta egu-neroko borrorak hobeto eramaten laguntzen dizu, baina, era berean, jakin behar duzu galeratik ere ba-dagoela bizitzan. Malenkonia hor-tik dator, gure bizitzan magia apur bat dagoela baina, aldi berean, ihes egiten digun zerbait ere badago-e-la sentituzetik. Bizitzak eta denborak ihes egiten digute, eta ez dakigu nora goazen; hor badira esploratzeko go-goia pizten didaten istorioak.

Aldi berean, gainerako pertsonaiak ere euren dilemak bizitzen ari dira, istorioari sakontasuna emanez. Nolako izan zen aktoreak auke-ratzea eta haiekin lan egitea?

Lau protagonistetatik eta lauron bi-zi-momentutik zerbait dugula senti-tzea da helburua. Enpatiarekin asko jolasten genuen, aktoreek eta nik per-sonaiaz hitz egiten genuen eta buelta asko ematen genizkien pertsonaiei, gutaz zegoena ulertu nahian. Honen-beste, hunkitu egiten zara, barre egi-ten duzu, zuregan hurbiltzen duzu,

eta, azkenean, ezagutzen duzun nor-bait bezalakoa da. Oso prozesu poli-ta izan da pertsonaiak ulertzea, nor-berak bere buruarengana hurbilduz.

Protagonista arkitektoa den ai-tzakiarekin, hiria beste era ba-tera begiratzeko aukera ematen du filmak, modu estilizatuago eta pausatuago batean. Bere bizitza frenetikoari kontrapuntua ematea bilatzen zenuen?

Egunerokotasun eta hondamen sen-tsazio horren ondoan magia egotea beharrezkoa zen. Hiriari, elkartzen gaituen lekua eskainitako poema bat dago lan honetan. Bilbon filmatu zen baina izan zitekeen edozein hiri ere, hiriek daukaten alderik poetikoena edo magikoena erakutsi nahi genu-e-lako, batez ere gauez. Protagonistak hiri magiko horri forma ematen saiat-zen diren arkitektoak izatea bitxia zen. Postaletako irudirik agerikoena sai-hesten ibili ginen eta gure egune-rokoan nolabaiteko magia izan de-zaketen txoko horiek bilatu genituen, ez-lekuak, gutako bakoitza bizi ga-ren tokia izan zitekeela pentsaraz-ten diguna.

21

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2024

12 - 19 apirila / abril / April

Human Rights Film Network | Connecting human rights film festivals around the world

www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

Antolatzaileak / Organizan / Organizers: DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Giza Eskubideak Derechos Humanos, donostia kultura

Babesleak / Patrocinan / Sponsors: Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa, EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO, LEHENAGAITZA Giza Eskubideak, Euzko Legebiltzariaren Legebiltzar Nagusia, Euzko Legebiltzariaren Legebiltzar Nagusia, Euzko Legebiltzariaren Legebiltzar Nagusia, Euzko Legebiltzariaren Legebiltzar Nagusia, Euzko Legebiltzariaren Legebiltzar Nagusia